

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2234

273/2018 EBAZPENA, martxoaren 1ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide-taldeko Fak. Esp. Psikiatriako Medikuek kategorian lotura estatutarioko izaera lortzeko hautaketa-probetako epaimahai kalifikatzailea izendatzen da.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2018ko otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren bitartez onetsi ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 7ko 111/2018 Ebazpenaren bidez, onetsi ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide-taldeko Fak. Esp. Psikiatriako Medikuek kategoriarako oinarri espezifikoak.

Oinarri orokorrak onartu zituen Ebazpenaren 18. oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorritik, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak hautaketa-probak kalifikatuko dituen epaimahaia izendatuko du.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, honakoa

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Lehen aipaturiko kategoriako prozesuaren Epaimahai Kalifikatzailea izendatzea. Hori ebazpen honen I. eranskinean jasotako kideek osatuko dute.

Bigarrena.– Ebazpen honek duen egunetik aurrera emango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren 21. oinarrian ezarritakoari jarraituz, Ebazpen honen kontra gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 1a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.

I ERANSKINA

FAK. ESP. PSIKIATRIAKO MEDIKUA

Presidentea:

– Titularra: José Antonio De la Rica Giménez.

– Ordezkoa: Ainhoa Epalza Bueno.

Lehenengo epaimahaikidea:

– Titularra: Imanol Querejeta Ayerdi.

– Ordezkoa: Miguel Ángel González Torres.

Bigarren epaimahaikidea:

– Titularra: María Artamendi Larrañaga.

– Ordezkoa: José Ignacio Eguiluz Uruchurtu.

Hirugarren epaimahaikidea:

– Titularra: José Andrés Martín Zurimendi.

– Ordezkoa: José Juan Uriarte Uriarte.

Laugarren epaimahaikidea:

– Titularra: Juan Medrano Albéniz.

– Ordezkoa: Gixane González García.

Bosgarren epaimahaikidea:

– Titularra: María José Sakara Magallón.

– Ordezkoa: Eduardo José Elizagárate Zabala.

Seigarren epaimahaikidea:

– Titularra: Ana María González Pinto Arrillaga.

– Ordezkoa: María Purificación López Peña.

Idazkaria:

– Titularra: Serafín Vigiola Larrínaga.

– Ordezkoa: Carolina Santolaya Quinteros.